

COVID 19AREN KONTRAKO TXERTAKETA- KANPAINA – 2022KO UDABERRIKO KIMAKETA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak kanpaina bat jarri du abian Arabako Errioxako **sasoiko langileen COVID-19aren aurkako txertaketa indartzeko** 2022ko udaberriko kimaketa-kanpainan.

Pertsona horiei txertaketa eskainiko zaie, eta txertaketa-jarraibidea osatzeko behar diren dosiak emango zaizkie eskualdean dauden bitartean.

Egoera epidemiologikoa gorabehera, prebentzio- eta txertaketa-neurriak oso garrantzitsuak izaten ari dira pandemia honen ondorioak murrizteko.

Zer da txertaketa-jarraibide osoa edukitzea?

PFIZER txertoa

2 dosi, eta azken txertoa hartu zenetik 7 egun baino gehiago igaro izana.

MODERNA txertoa

2 dosi, eta azken txertoa hartu zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.

ASTRAZENECA txertoa

2 dosi, eta azken txertoa hartu zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.

JANSSEN txertoa

Dosi bat, eta 14 egun baino gehiago igaro izana.

Txertaketa-jarraibide mistoa

1. dosia AstraZeneca + 2. dosia Pfizer, eta azken txertoa hartu zenetik 7 egun baino gehiago igaro izana.

1. dosia AstraZeneca + 2. dosia Moderna eta azken txertoa hartu zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.

Dosi horiek jarrita badituz dagoeneko, besteren bat jarri behar dut? Eta Covida pasatu badut?

Zure zalantzak argitzeko, deitu telefono honetara:

945006908

Edo bidali mezu bat helbide honetara:

temporeros.osiriojaalavesa@osakidetza.eus

Osasun arloko langileek zure egoera baloratuko dute eta jarraibideak emango dizkizute.

Txertatu egin nahiko nuke. Zer egin behar dut?

Orain arte txertorik hartu ez baduzu, edo dosiren bat jarri baduzu eta indartze-dosia badagokizu, Osakidetzak txertoa hartzeko eta beharrezko informazioa emateko aukera eskaintzen dizu.

INTERESATUTA BAZAUDE EDO ZALANTZARIK BADUZU, DEITU HONA:

945006908

Edo bidali mezu bat helbide honetara:

temporeros.osiriojaalavesa@osakidetza.eus

Osasun arloko langileek zure egoera baloratuko dute eta jarraibideak emango dizkizute.

Honako hauek eraman:

- **NANA, pasaporte** edo **AIZA**
- **Txertaketa-ziurtagiria** paperean edo mugikorrean, dosiren bat jarri baduzu.

Nola jaitsi dezaket nire COVID ziurtagiria?

Sartu Osasun Ministerioaren web orriko esteka honetan:

<https://www.mschs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/altasActual/nCov/ccd/cca.htm>

Non txertatuko naute?

Txertaketa-gune bat jarriko da Arabako Errioxako Eskualdean.

Zein txerto jarriko didate?

Pfizer

